

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2020-2021 ikasturtea**

### **TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZAK ESKOLAN: DERIOKO EUSKARA IKASTEKO PROPOSAMENA**

**Egilea:** Jone Egusquiza Garcia

**Zuzendaria:** Aintzane Etxebarria Lejarreta

**Leioan, 2021ko maiatzaren 23an**

## TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZAK ESKOLAN: DERIOKO EUSKARA IKASTEKO PROPOSAMENA

Jone Egusquiza Garcia

UPV/EHU

Azken urteetan euskararen egoera hobetu da, euskaldunen ehunekoa EAEn, Nafarroan eta Iparraldean nagusitu baita. Hala ere, euskara batua sortu zenetik, garrantzi handia hartu du, indarra hartuz eta bestelako euskalkiak bigarren maila batean utziz. Bigarren mailako aldaerak, tokian tokiko hizkuntzak, eskolan lantzea baliagarria izango litzateke, ikasleek eskolara ekartzen duten hizkuntza-eredua haien ikaskuntza eratzeko oinarria delako. Hau da, eskolak hiztun onak hezteko helburua izanik, euskara batuarekin batera, euskalkien eta haren aldaeren inguruan ere aritu behar da, belaunaldien desagerpena saihesteko. Beraz, hauek lantzeko baliabide desberdinen sorrera ezinbestekoa da, testuliburuak ez baitira kontsulta material bakarrak.

*Euskara batua, tokian tokiko hizkuntzak, eskola, ikaskuntza, baliabideak*

En los últimos años la situación del euskara ha mejorado, ya que el porcentaje de euskaldunes se ha impuesto en la CAPV, Navarra e Iparralde. Sin embargo, desde que nació el euskara batua ha cobrado gran importancia, ganando fuerza y dejando a un segundo plano los otros dialectos. Las variantes de segundo nivel, las lenguas locales, sería útil trabajar en la escuela, ya que el modelo lingüístico que los alumnos traen a la escuela es la base para la formación de su aprendizaje. Es decir, con el objetivo de que la escuela eduque a buenos hablantes, junto con el euskara unificado, hay que trabajar también los dialectos y sus variantes para evitar la desaparición de las generaciones. Por tanto, la creación de diferentes recursos para su elaboración es impensable, ya que los libros de texto no son las únicas consultas materiales.

*Euskara batua, lenguas locales, escuela, aprendizaje, recursos*

In recent years, the situation of the Basque language has improved, as the percentage of Basque speakers has increased in the Basque Autonomous Community, Navarra and Iparralde. However, since the birth of euskara batua, it has gained great importance, gaining strength and leaving the other dialects in the background. The second level variants, the local languages, would be useful to work on at school, since the linguistic model that students bring to school is the basis for the formation of their learning. In other words, in order for the school to educate good speakers, along with the unified Basque, it is also necessary to work on the dialects and their variants to avoid the disappearance of generations. Therefore, the creation of different resources for its elaboration is unthinkable, since textbooks are not the only material consultation.

*Euskara batua, local languages, school, learning, resources*

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1. MARKO TEORIKOA</b>	<b>4</b>
1.1. Euskara: egoera zertan den	4
1.1.1. Euskal diglosia	5
1.1.2. Euskara batua eta estandarra	6
1.1.3. Euskalkiak	6
1.1.4. Txorierriko barietatea eta Derioztarren euskara	8
1.1.5. Txorierriko ekintzak Derioko euskara bultzatzeko	10
1.2. Euskalkiak irakaskuntzan	11
1.2.1. Euskalkiak curriculumean	12
1.2.2. Dakigunetik ez dakigunera	13
1.2.3. Zenbait baliabide euskalkien irakaskuntzarako	14
1.2.3.1. Eskolarako baliabideak	15
1.2.3.2. Helduen euskalduntzerako baliabideak	16
<b>2. PROPOSAMENA: “Derioko euskara” webgunea</b>	<b>17</b>
2.1. Webguneraren ezaugarriak	17
2.2. Webgunea sortzeko jarraitu den prozedura	18
2.3. Webgunearen bidez lantzen diren kompetentziak, helburuak eta edukiak	21
2.4. Erabiltzeko iradokizunak	22
<b>3. ONDORIOAK</b>	<b>23</b>
<b>4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b>	<b>24</b>

## SARRERA

Gizartean diglosiaren ondorioz, elkarrekin harremanetan dauden bi hizkeren/hizkuntzen artean desberdintasuna gauzatzen da eta hizkeretatik/hizkuntzetatik batek besteak baino prestigio handiagoa hartzen du. Euskara batuarekin eta euskalkiekin hori gertatu zen, euskalkiak egon arren, euskara batua sortzean lehentasunezko trataera jaso zuela.

Hala ere, euskara batuaz gain, hizkuntzaren aldaera ez-estandarrek ezagutzea eta hauek lantzea garrantzitsua da, ikasleek ikasten dituzten hizkuntzen eraketan eragina handia baitute. Izan ere, tokian tokiko hizkuntzak eskolan lantzearen helburua, euskararen aldaeren aldeko jarduerak burutzean datza, euskalkiak zein euskara batua maila berdinean kokatzeko. Hauek lantzerako orduan, inguruko hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzea inportantea da, euskalkien ezagutzak hizkuntza estandarra aberasten baitu.

Hortaz, eskola ikasleen ingurugiroan murgilduta egotea garrantzitsua da; modu honetan, horren testuinguruari erantzuten diolako, ikasleek haien egunerokotasunean eta haien ekintzetan erabiltzen dutenari jarraituz; hau da, eskola bakoitzak bertoko ahozko hizkuntza kontuan izatea ezinbestekoa da. Horretarako, eskolan lantzerakoan, testuliburua kontsulta material bakar bezala erabili beharrean, beste informazio-iturri batzuk erabiltzea lagungarria izango litzateke, ikasleen irakaskuntza garatzen lagunduko luketelako; hala nola, webguneak.

Gizartean eta eskolan euskara aldaeren ugaritasuna dela eta, helburu nagusia horien inguruan ezagutza eta jakintza izatea da, erabil daitezkeen baliabide desberdinak kontuan izanik; kasu honetan, sortutako webgune baten bidez. Izan ere, ikasleek gaiaren inguruko jakintzarekin batera, haien ingurumenean hitz egiten den aldaeraren ezagutza garatzeko aukera dago. Baliabide honen ondorioz, irakasleek tokian tokiko hizkuntzak eskolan lantzeko baliabide berri bat izango dute, ezagutza guztiz garatzeko eta webgunearen bidez gaia osotasunean ezagutzeko eta lantzeko, honen barruan beste baliabide desberdin batzuk landu daitezkeelako; esate baterako, jolasak, testuak, bideoak eta podcastak.

## 1. MARKO TEORIKOA

Lanaren helburua lortzeko, tokian tokiko hizkuntzak eskolan lantzeko, informazio bilketa egin da, gaia osotasunean ulertzeko eta egoerari proposamen bat aurkitzeko. Beraz, bilatutako informazioa euskararen egoeraren ezagutza (diglosia, euskalkiak, euskara batua, txorierriko barietatea eta Derioko euskara bultzatzeko ekintzak) eta irakaskuntzan duten trataera (curriculumean nola lantzen diren, ikaskuntza esanguratsua eta lantzeko dauden baliabideak) izan dira.

### 1.1. Euskara: egoera zertan den

Euskararen egoera kontuan hartuz eta hizkuntz ofizialtasuna behatuz, gaur egun, euskara hitz egiten den eremu guztietan ez da ofiziala. Egia da azken urteetan euskararen egoerak hobera egin duela; izan ere, euskaldunen ehunekoa nagusitu da EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. Hazkunde hori gazteek euskararekiko izandako indarberitzearen ondorioa izan da (Garay eta Etxebarria, z.g), gazteen artean, euskararen transmisioa lehen hizkuntzat hartu delako. Hala ere, oraindik egoera hobetzeko bidea egin behar da, euskara lehen hizkuntzat dutenen taldea gutxiengoa delako, gehienek bigarren hizkuntzat hartzen baitute (Martinez de Luna, et al. 2011).

Euskararen egoera osotasunean ulertzeko, erabiltzen diren eremuak ezagutzea ezinbestekoa da, hauek eragina dutelako; horregatik, euskararen egoera eremu pribatuan, hala nola familian eta eremu publikoan, esate baterako hezkuntza-sisteman eta irakaskuntzan, kontuan izan behar da (Martinez de Luna, et al. 2011).

Eremu pribatuari dagokionez (familiar), lehen hizkuntza familiaren bizitzako lehen hiru urteetan ikasten dena da, hizkuntza baten bizitasuna neurtzerako orduan gehien kontuan hartzen den faktorea delako. Beraz, bi gurasoak elebidunak direnean, bakarra elebiduna izatean baino transmisio handiagoa dago; hau da, euskara bakarrik edo gaztelaniarekin edo frantsesarekin batera lehen hizkuntzat hartzearen ehuneko handiagoa da (Martinez de Luna, et al. 2011).

Eremu publikoan, UNESCOk hezkuntza-sistema arriskuan dauden hizkuntzak berreskuratzeko lehentasunezko jarduera-eremuen artean kokatzen du (Martinez de Luna, et al. 2011). Irakaskuntzak izandako eraginaren ondorioz, euskara galdua zegoen lekuetan berriro ere agertu delako, espazio berriak zabalduz (Garay et al. z.g). Hala ere, euskararen egoera irakaskuntzan bi hiztun-moten banaketa kontuan izan behar da; alde batetik, lehen hizkuntzat euskara dutenak, eta eskolan hizkuntza horretan sozializatzen direnak eta

bestetik, bigarren hizkuntzatzat dutenak, eta ikastetxean euskara bigarren hizkuntza gisa hartzen dutenak (Martinez de Luna, et al. 2011).

### **1.1.1. Euskal diglosia**

Gizartean elkarrekin harremanetan dauden bi hizkeren/hizkuntzen artean dagoen desberdintasuna da diglosia; hau da, hizkeretatik/hizkuntzetatik bat bestea baino prestigio handiagoa izatea eta erregistro formaletan erabiltzea, beste hizkera/hizkuntza, prestigio gutxikoa eta erregistro ez-formaletan erabiltzen den bitartean (Goikoetxea, 2003).

Euskal diglosia, gaztelaniaren eta euskararen arteko txoko itxia da; izan ere, euskal diglosiaren barruan, euskara eta gaztelera ofizialtasun berdina izan arren, ez daude egoera berean, batek besteak baino indar eta maila altuagoa du (Goikoetxea, 2003). Gizartean euskararen presentzia faktore hauen eraginez gutxitu zen. Alde batetik, gaztelera hitz egitea komenigarria zelako, bai administrazioarekin harremanetan egoteko bai gizartean gora egiteko ere. Bestetik, hezkuntza-sistemaren hedapenaren ondorioz, gaztelera ikastea errezagoa zelako. Gainera, gizartean gero eta gaztelera gehiago egitean, zailagoa zen euskara jakitea (Escribano, 2015).

Eragile horiek izan arren, diglosia garaitzerakoan, euskara ofizialtasuna eta administrazioa hizkuntza izatea lortu zuen. Ofizialtasuna lortzean, azkenengo hamarkadetan euskarak garrantzia hartu eta aurrera egin zuen, beharrezko hizkuntza bihurtu baitzen (Escribano, 2015). Ofizialtasuna izatean, euskara batuaren kasuan, aukera irekia eman zaie euskalkiei eta azpieuskalkiei (Goikoetxea, z.g). Beraz, honekin lortu nahi dena hiztun komunitate bakoitzak bere aldaera izatea da, hala nola, euskara batua, euskalki literarioak eta etxekoa (Goikoetxea, 2003).

Esan bezala, euskal diglosiaren barruan, euskalkien eta estandarren artean berdina gertatzen da, batek besteak baino indar handiagoa du (Goikoetxea, 2003), euskara batua agertu eta lantzen hasi zenetik, lehentasunezko trataera jaso baitu (Maia & Elordui, 2002). Izan ere, Txillardegiren ustez, euskalkiak sentimenduak nagusitzen diren egoeretan erabiltzen diren bitartean, lagunen artean nagusiki, ideietarako, liburu zientifikoetarako eta ekintza ofizialetarako euskara batua erabiltzen da. Honez gain, euskara erabiltzen den esparruak eragin handia du; hau da, heziketa-laguna (norekin zauden), erabiltzen duzun euskara (nor zaren) eta momentua (noiz ari zaren) eragina dute (Goikoetxea, z.g).

### **1.1.2. Euskara batua eta estandarra**

Hizkuntza guztiak hizkuntza mintzatuak eta ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmitituak izan dira. Hala ere, denbora igaro ahala transmisio hau nahikoa ez izatean, zibilizazioaren sorrerak, gizarte antolamendua konplexuagoa bihurtu zuen. Konplexutasun honen ondorioz, arau batzuk ezartzea derrigorrezko ikusi zuten, idazketa sortu zuten (Elkartea, 2010).

Gaur egun arte euskalkiak hizkera eredu zehatzak izan arren, XX. mendearen erdialdean Euskal Herrian mugimendu bat hasi zen hizkuntza estandarra sortzeko eta garatzeko (Maia & Larrea, 2008) eta euskara batuaren bidea 1968. urtean sortu zen lehenengo aldiz eta ofizialki (Euskaltzaindia, 1968). Euskara Batua euskal bizitza osoaren eskabide kritikoaren bideratzailea da: alderdi politikoena, forma sozialena, ohiturena, literaturarena, etab. Hala ere, kontuan izan behar da euskara batuak aldaketa kulturean izandako eragin handia (Larringan, 1993).

Euskara batuaren helburu nagusia euskararen estandarizazioa eta normalizazioa izan da (Larringan, 1993); hau da, euskaldun guztiek ulertzeko hizkuntza komuna ezartzea (Euskaltzaindia, 1968). Beraz, euskara batua denontzat eta denetarako eredu da. Denontzat da, hiztun guztien eskura dagoen eredu delako; izan ere, euskalkien artean sortzen ziren komunikazio-zailtasunei aurre egiteko sortu zen. Denetarakoa, aldiz, gaur egungo edozein egoeratan erabil daitekeela esan nahi du, ez baita ekintza edo zeregin berezietan soilik erabili behar (Maia & Larrea, 2008).

Beraz, euskara batua, idatziaren estandarizaziorako pentsatuta dago, arau-mota bat (arau kodifikatua) baita (Larringan, 1993). Horretarako, idazteko arauak finkatu behar izan dira, hizkuntzaren enborrean bilatuz eta muina aurkitzeko lana eginez (Elkartea, 2010). Beraz, ahozkoaren eredu eragina izan arren, ez da ahozkoa “ordezkatzeko”. Izan ere, euskara batuaren zeregina hizkuntz estandarra izatea da. Hortaz, estandarizazioak, hizkuntza kultuagoaren inguruan gauzatzen den gizarte-portaera eragiten du, hizkuntza horren barruan erabilera “zuzena” mugatzen duten arauak eta erabilerak kodifikatuz eta onartuz (Larringan, 1993).

### **1.1.3. Euskalkiak**

Euskararen aniztasuna oso bereizgarria da eta denboraren eta banaketa politikoen ondorioz, Erdi Aroan euskalkiak sortzen hasi ziren (Elkartea, 2010). Euskalkiek Euskararen hizkera bereziak izanda, kasu batzuetan normaltasuna garatu dute, behinik behin literaturari

dagokionez (Larringan, 1993); izan ere, euskararen barnean lau euskalki literario adierazten dira: lapurtera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera (Goikoetxea, 2003).

Louis-Lucien Bonapartek, Frantziako ikerlariak, XIX. mendean hizkuntzaren dialektoak ikertu ondoren, zortzi zirela ondorioztatu zuen: bizkaiera, gipuzkera, hego nafarrera garaia, ipar nafarrera garaia, mendebal nafarrera beheara, ekialde nafarrera beheara, lapurtera eta zuberera. Duela gutxi, Koldo Zuazo hizkuntzalariak sailkapen hori erreparatu ondoren, gaurko euskalkiak ondorengoak direla ondorioztatu du, zuberera, nafarrera, nafar-lapurtera, ekialdeko nafarrera, mendebalekoa, eta erdialdekoa (Elkartea, 2010). Hala ere, sailkapenak aldaketak izan ditu eta honela bereizi dira: mendebalekoa (azpieuskalkiak mendebalekoa eta ekialdekoa izanik), erdialdekoa (azpieuskalkiak Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa izanik) eta ekialdekoa (azpieuskalkiak itsasaldekoa, barnealdekoa eta Zuberoakoa izanik) (Aurrekoetxea et al. 2019).

Euskalkien karakterizazioan lurraldeak edo geografiak lotura dute (Larringan, 1993). Irakurketa geolinguistikoari dagokionez, azter-eremua esan bezala hiru zatitan banatzen da; mendebalekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa direnak, bakoitza bere barnean hizkera multzo desberdinak izanik. Mendebaleko euskalkia 43 hizkera multzoz osatuta dago, mendebaleko azpieuskalkia 27 hizkeraz eta ekialdeko azpieuskalkiak 16 hizkeraz. Erdialdeko euskalkia 55 hizkera multzo ditu, Gipuzkoako azpieuskalkiak 30 hizkera eta Nafarroako azpieuskalkia 25 hizkera. Azkenik, ekialdeko euskalkiak 46 hizkera multzo osatzen dute, barnealdeko azpieuskalkia 8 hizkera, barnealdekoa 27 hizkera eta Zuberoakoa 11 hizkera (Aurrekoetxea, et al. 2019).

Aipatutako hizkeren multzo desberdinak ez galtzeko, hizkuntzaren aldaera ez-estandarrik ikasleen hizkuntzen prestakuntzan lantzea ezinbestekoa da. Izan ere, tokian tokiko hizkuntzak ikasgelan ondo lantzeak, eragin handia du hizkuntza gutxituak familian eta jendartean babesteko eta sendotzeko momentuan. Hizkera hauek txarto edo ez tratatzeak ondorio soziolinguistikoak ekar ditzake; euskalkiaren erabilerari eragiteaz gain, belaunaldien arteko familia harremanei eta hizkuntzaren transmisioari (edozein aldaerari) ere eraginez. Beraz, oso garrantzitsua da azken urteetan hizkuntza aldaera hauek (tokiko hizkerak, euskalkiak) lantzeko sortutako interesa (Maia & Elordui, 2002).

Hizkerak lantzeaz gain, hauek guztiz garatzeko euskalki bakoitzaren azterketa ere egitea lagungarria da eta ikuspuntu desberdinak behatuz egin daiteke; alde batetik, hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik eta bestetik, soziolinguistikaren ikuspuntutik. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntua, hizkuntza egituren azterketa lantzean datza; hau da, fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa. Soziolinguistikaren ikuspuntuarekin, euskalki



bakoitza (edo azpieuskalki) zenbat hiztunek erabiltzen duten jakin dezakegu (Maia & Larrea, 2008).

#### **1.1.4. Txorierriko barietatea eta Derioztarren euskara**

Mendebaldeko euskalkian bi azpieuskalki bereizten dira, hauetan zazpi hizkera bereiziz. Azpieuskalkiek sartaldekoak eta sortaldekoak dira eta sartaldeko azpieuskalkiak bi multzo nagusitan banatzen dira: alde batetik, ipar-sartaldekoa eta bestetik, hego-sartaldekoa. Txorierriko euskara ipar-sartaldeko hizkera multzoan sartzen da (Ahotsak, z.g.).

Txorierriko hizkuntza egituraren barruan dauden atalak mendebaldeko fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa dira. Fonologiari dagokionez, bokaletan eta kontsonanteetan zentratuz, ondorengo puntuak aipa daitezke 1. taulan (Zuazo & Goiti, 2016):

<b>Bokalak</b>	<b>Kontsonanteak</b>
1. Hitzak -a bokalean amaitzen direnean eta artikularekin batzen direnean -a + a > -ea bihurtzen da Txorierriko ondorengo herrietan: Sondikan, Derion eta Zamudion.	1. Txorierrin asimilazio bustidura ahula da, izan ere, l eta n baino ez dira bustitzen; hau da, j bokalardiaren eta beste bokal baten artean daudenean (j-v ingurunean).
2. -au- > -eu- egiteko joera, Mungialdean, Mungia gehienez eta Txorierriko ekialdean, Derio eta Larrabetzu bitartean ematen da.	2. Txorierrin, “j” ahoskera hitz euskaldunen hasieran egoten da, esate baterako <i>yai</i> “jai”.

*Taula 1: Fonologia taula*

Morfologiari dagokionez, aipatu daitezkeen atalak izenaren morfologia (honen barruan artikulua eta izenordaina izanik), aditzaren morfologia (honetan morfema, partizipioa eta aditz izena aipatuz) eta eratorpenak dira, 2.taulan adierazi direnak (Zuazo & Goiti, 2016).

Izenaren morfologia	Aditzaren morfologia	Eratorpenak
1. Soziatiboko morfema singularra izatean <i>-gaz</i> (> <i>-az</i> ) eta plurala izatean <i>-kaz</i> da; hau, mendebaldeko sartaldean erabiltzen da gehien bat.	1. <i>Edun</i> -en adizkien erroan orainaldiko 3.pertsonen <i>-o-</i> , <i>-au-</i> eta iraganeko <i>-eu-</i> adierazten dira mendebaldean, estae baterako <i>dot</i> “dut”.	1. Nahiz eta gutxitan erabili, batzuetan mendebaldean adberbioak sortzeko <i>-to</i> atzizkia erabiltzen da, esate barerako, <i>ederto</i> “ederki” edo <i>txarto</i> “gaizki”
2. Hurbiltze adlatiboan ere morfema berezia erabiltzen da: <i>-rantza</i> eta <i>-runtz</i> erabili arren, ipar-sartalde osoan erabiltzen dena <i>-rantza</i> da.	2.Morfemetan NOR-NORI ataleko orainaldian <i>d-</i> izatea ezaugarria da; hala ere, mendebaldeko <i>y-/dx-</i> orokorrak ez dira ezezagunak, adibidez, <i>dat/yat</i> “zait”.	2. <i>-la</i> orokorra erabili beharrean mendebalde gehienera <i>-lan</i> aldaera erabiltzen da, honen adibide, <i>holan</i> “horrela” eta <i>zelan</i> “nola”.
3. Artikulu hurbilak hizkuntza batzuetan oso galduta egon arren, mendebaldean oraindik bizirik jarraitzen du.	3. Partizipioetako <i>-i</i> galtzeko joera du, adibidez, <i>ikus dot</i> “ikusi dot”.	3. Adizki txikigarria adierazteko <i>-txu</i> jartzen da amaieran, adibidez, apurtxu bat.
4. Izenordainen atalean, “ <i>edo</i> + izenordain galdetzailea” itxurakoak eta “izenordain galdetzailea + <i>edo</i> + izenordain galdetzailea” egiturakoak dira bereizgarri. Alde batetik, <i>edozein</i> , <i>edonora</i> eta bestetik, <i>zeozer</i> , <i>nonora</i> . (Zuazo, 2004)	4. Txorierriko ekialdean, partizipioa <i>-eu</i> izan ohi denez, <i>-etan</i> da aditz izena: <i>falletan</i> “fallatzen”.	
	5. Txorierriko ekialdean (Derio eta larrabetzu bitartean) <i>-au-&gt;-eu</i> bilakatzen da.	

Taula 2: Morfologia taula

Barietateekin jarraituz, sintaxiaren hurrengo puntuak agertzen dira mendebaldeko euskaran.

1. Kausa eta helburu perpausetan *-tze*arren atzizkia erabiltzen da mendebaldean. (Zuazo, 2004)

2. Kontzesio perpausetan arren erabiltzen jarraitzen da mendebaldean, adibidez, "oso nekatuta egon arren, kalera irtengo naiz". (Zuazo, 2004)
3. Denbora esaldietan, partizipioa + keran egitura dago. (Zuazo & Goiti, 2016)
4. *bi* zenbatzailea izen sintagmaren ondoren jartzen da, adibidez, urte bi egon da Londresen (Zuazo, 2004)
5. Erakusleak, izenaren aurrean jartzen dira mendebaldean, esate baterako, horri gizonorri, haren gizonan. (Zuazo, 2004)

Amaitzeko, lexikoa aurkitzen da. Aldaeren artean honako hauek aipa daitezke, *baie* (baina), *atzena* (azkena), *arin* (laster), *oin* (orain), *barik* (gabe) eta *emon* (eman). Lexikoaren multzoan sartzen diren batzuk: *arrakada* (belarritako), *artez* (zuzen), *atoan* (berehala), *belu* (berandu), *koiu* (hartu), *lotu* (geratu) eta *martitzen* (astearte) (Gaminde et al., 2006).

### **1.1.5. Txorierriko ekintzak Derioko euskara bultzatzeko**

Txorierriko herriek euskararekin duten harremana kontuan izanda, Txorierriko mankomunitateak euskara lantzeko zerbitzu desberdinak (ipuin lehiketak, mihiluze eta berbalagun egitasmoa esate baterako) eskaintzen ditu eta zerbitzu hauen helburua euskararen erabilera eta euskara bera esparru guztietan indartzea eta bultzatzea da, eskoletan, kalean, familietan, enpresetan, administrazioan zein gazteen artean. Horregatik, Mankomunitateak euskararen jakintza eta ezagutza eta bereziki erabilera aztertu nahi du (Txorierriko mankomunitatea, z.g.).

Euskararen erabilera bultzatzeko Mankomunitateak euskaraz bizi atala du, non balibaide desberdinak eskaintzen diren, hauen artean, euskararen txokoa, Txorierriko udal eskalategia eta euskararen plan estrategikoak eta kudeaketa planak. Euskararen txokoan, euskara lantzeko baliabide zein ekintza desberdinak daude, informatikako baliabideak, gazteen txokoa, euskara ikasteko txokoa eta kirola, besteak beste. Aipatutako baliabide bakoitza, hauek lantzeko edo egiteko atal, bide eta harraminta desberdinez osatuta dago, euskara ikasteko txokoan, adibidez, euskara lantzeko webguneak, euskaraz hitz egiteko guneak eta aldizkari desberdinak daude. Baliabide desberdinen hauen bidez, ikasleek euskara ikasteko eta honen erabilera handitzeko aukera izango dute; izan ere, baliabide desberdinetan errekurtso asko daude, webguneak, aldizkariak zein jolasak. Hauekin batera, lotura duten bestelako zerbitzu batzuk ere agertzen dira, ikasleek euskara landu eta erabiltzeko baliagarriak eta lagungarriak direnak, esate baterako, ipuin lehiaketa eta mihi luze (Txorierriko mankomunitatea, z.g.).

Baliabide hauez aparte programa desberdinak ere badaude, berbalagun programa esate baterako. Berbalagun Txorierriko Mankomunitateak eta Totoan Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako proiektua da eta honen helburua mintzapraktika garatzea da. Horretarako, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak, ohitura ez dutenekin elkartzen dira, euskara praktikatu ahal izateko. Praktika burutzeko astean behin elkartu eta ordu betez bakoitzari gehien gustatzen zaion ekintza bat egiten dute, ekintza burutzen duten bitartean euskara erabiliz eta praktikaturik. Proiektua Larrabetzun eta Derion martxan egonez gero eta ondo funtzionatzeagatik, Txorierra osora zabaltzeko asmoa dago (Derioko udala, 2021).

Programekin jarraituz, Labayru Fundazioak eleketan programa aurkezten du. Honen helburua euskal kultura zabaltzea da, 3 eta 13 urte bitarteko umeei zuzendutako tailerrak sortuz. Modu honetan, kultura modu ludikoan ezagutzen eta transmititzen da, gazteen eta euskararen eta euskal kulturen arteko lotura emozionala sortuz. Izan ere, euskal kulturaren transmisioa ezagutzeaz gain, bizitzea ezinbestekoa da. Horretarako, tailerren bidez gai desberdinak lantzen dira, hauen artean, hizkuntzarekin lotutakoak, jolasak, urteko zikloko jaiak edota kantu-dantzak. Tailerren bidez hautatutako gaia lantzen da, hasiera batean azalpen, argibide edo edukiren bat izanik, ondoren alderdi praktikoa burutzeko. Beraz, jarduera burutzeko ordu eta erdiko saioa, euskara erabiltzeko tartea izango da, azalpenak edo bestelakoak sortzean euskararekiko harremana sortuz, beti ere, euskal kultura ezagutzen duten bitartean (Labayru Fundazioa, 1977).

## **1.2. Euskalkiak irakaskuntzan**

Euskara Batua sortu zenetik, gainontzeko aldaeretatik garrantzi handiena hartu du, bestelako euskalkiak bigarren maila batean utziz. Hala ere, azkeneko urteetan, bigarren mailan dauden aldaerak nabarmendu dira, haien balioa nagusituz eta komunikazio testuinguru desberdinetan lantzeko indarra eginez, irakaskuntza esparruan esate baterako (Elordui & Maia, 2002).

Eskolaren ikuskerak ingurunean integratuta egon behar du eta hari erantzun behar dio. Horrek esan nahi duena, haurrak eskolatik kanpo ematen duenari arreta jarri behar zaiola da, zehatzago esanda, leku bakoitzeko ahozko hizkuntza kontuan hartu behar dela; izan ere, literatura-ereduak eskolako zereginetan ez baitira eredu onargarri bakarrak (Maia, 2001). Hau da, hezkuntzan, bi erregistroren erabilerak landu behar dira gutxienez: lagunartekoak eta landuak, ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasunak kontuan harturik (Euskaltzaindia, 2004).

Eskolak hiztun onak, biziak eta adierazkorrak bideratzea du helburu. Horretarako, gaur egungo eta etorkizuneko Euskal Herrian, ikasleak euskara batua ikasteaz gain, euskalkiak eta haren aldaerak ere ezagutu behar dituzte, belaunaldietan galtzeko joera saihesteko, konplexuak ezabatzeko bidean arituz (Maia, 2001). Izan ere, hezkuntzaren eginkizunetako bat ikasleei hizkuntzaren erabileran ahalik eta abileziarik handiena eskaintzea da; euskalkiek nortasun propioa dutenez, eta hezkuntzan lantzea garrantzitsua denez, dituzten osagai esanguratsuak kontuan hartzea eta hizkuntzan betetzen duten funtzioa ezagutzea beharrezkoa da. Horregatik, eskolan lantzerakoan lagunartekoa (euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen da) eta landua (euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landua da) egoeraren arabera desberdin erabiltzen jakitea ezinbestekoa da. Horretarako, irakasleak bi hizkera hauen ezagutza izan behar du, ikasleei erabilpen egokia egiten laguntzeko (Euskaltzaindia, 2004).

Beraz, irakaskuntzan euskalkiak eta euskara batua aztertzerakoan, oinarri zientifikoetan jardun behar da, proposatutako prozeduren ondorioz errealitatean eta arrazoian sakonduz. Izan ere, euskalkiaren eta euskara batuaren arteko harremanak, azterketa sistematikoen bidez eta epe luzera bakarrik ebalua daitezke (Goikoetxea, 2003).

### **1.2.1. Euskalkiak curriculumean**

Euskalkiak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea) hizkuntza- eta literatura komunikaziorako kompetentzia atalean lantzen dira, hain zuzen ere, euskara eta literatura atalean. Euskalkiak lantzearen helburuak eskolako eta ikasleen inguruko hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzea da, berezitasunak lantzerakoan jarrera egokia izanik eta kultura ondareztat hartuz. Hau garatzeko zikloaren arabera eduki desberdinak lantzen dira, curriculumaren seigarren multzoan agertzen direnak, hizkuntzaren alderdi sozialean (Heziberri, 2020).

Lehen zikloko garatu beharreko edukiak, norberaren hurbileko euskara aldaera dialektalak identifikatzea, aztertzea eta ezagutzea eta euskara eskola esparruan erabiltzeko jokaera egokia izatea dira. Bigarren ziklokoan, lehenengoan aipatutakoez gain, beste batzuk ere lantzen dira. Bigarren zikloko lehenengo edukia eskolan zein norberaren inguruan euskararen erabilera zabaltzearen eta normalizatzearen aldeko ekimenetan parte hartzea da. Honekin batera, euskararen aldaera dialektalak identifikatzeko eta aztertzeko edukia aurkitzen da. Hirugarren edukia hizkuntza estandarraren eta norberaren inguruko euskararen aldaera dialektalak nagusitzen ditu. Beraz, norberaren hizkuntza erreperitorioa zabaltzearen

aldeko interesa izateko edukia garrantzitsua da. Azkena, euskara eskolan zein gainontzeko gizarte-esparruetan erabiltzearen aldeko jokaera proaktiboa izatea da (Heziberri, 2020).

Gainera, Euskal curriculumaren berriazko edukien zehaztapenak kontuan izatea ezinbestekoa da. Bertan lantzen diren edukiak euskararen aldekoak dira, euskalkiei zein euskara batuari garrantzia emanez. Lehenengo edukia, hizkuntza ofizialak zein ez ofizialak, eleaniztasuna, elebitasuna eta diglosia lantzekoa da. Bigarrena, euskara bultzatzeko ekimenak eta programak haien inguruetan egitea da, esate baterako, eskolan edo herrian. Euskalkiei begira, hirugarren edukiak, gertuko euskalkiak ezagutzea eta euskalkiak hizkuntza estandarra aberasteko bide bihurtzea adierazten du (labayru programa). Azkenik, euskara batuaren garrantzia eta honen berreskurapena ere bultzatu behar duen edukia aurkitzen da (Heziberri, 2020).

Aipatutako helburu zein eduki guztiak ebaluatzeko irizpidea norberaren ikasgelako, eskolako eta etxe inguruko errealitate linguistikoa zein den jakitea, eta errealitate linguistiko hori balioestea da. Zikloaren arabera ebaluazio irizpide desberdinak adierazten dira. Lehenengo zikloan, inguruan dauden euskararen aldaera dialaktalak ezagutzea ebaluatzen da, bigarren zikloan, euskara batuaren eta euskalkien aldaera nagusien identifikazioa eta hauen komunikazio-balioa aitortzea ebaluatzen den bitartean (Heziberri, 2020).

### **1.2.2. Dakigunetik ez dakigunera**

Ikaskuntza esanguratsua gizakion ikaste prozesua da, eta honek gizabanakoak duen egitura kognitibo baten informazio berria barneratzen datza (Guruzeaga, 2007). Piaget-en hitzetan, esanahiak eraikitzean errealitatea ulertzeko ditugun eskemetan material berria sartzeri edo barneratzeari deritzo (Goikoetxea, z.g). Beraz, ikaskuntza esanguratsua gauzatzeko lehenengo urratsa hasierako eskemen eta eduki berrien arteko hausturan datza. Ataza hori ikaslearen eskemetatik oso urrun egotean, ikasleak ezin du adierazpenik eskaini eta horren ondorioz, irakaskuntza/ikaskuntza prozesua blokeatzen da. Ikaslearen hasierako oreka hausteko beharrak irakaskuntza-metodologiaren giltzarria dakar: motibazioa, atazaren aurkezpen egokia, etab (Goikoetxea, 2003). Ikasleak ikaskuntza esanguratsua izateko, bere kabuz egiteko eta besteen laguntzaren bidez ikasteko gai izan behar dira, behaketaren, imitazioaren edo berezkoak dituzten jarraibideen bitartez (Goikoetxea, 2003).

Eskolako ikaskuntzak eduki edo prozesuei lehentasuna eman beharrean, esanguratsua izateko ziurtasuna eskaini behar du. Horretarako, ikaskuntza esanguratsuaren eta ikaskuntza errepikakorraren arteko banaketa ikaskuntzan erabiltzen diren material berrien eta ikaslearen

aldez aurreko ezagutzen arteko lotura sortu behar du (Goikoetxea, 2003). Modu honetan, ikaskuntza errepikakorra eta esanguratsua giza ikaskuntzaren lerro berean kokatzen direnez, gizabanakoak informazio berriarekin eratzen dituen harremanen izaerak baldintzatzen ditu (Guruzeaga, 2007). Honela, ikasketa esanguratsua gauzatzean, ikasleak adierazpenak dituen errealitatea eraikitzen du, ikaslearen hazkunde pertsonalean duen eragina gero eta adierazgarriagoa izanik; horregatik, eskolan garrantzitsua da ikaskuntza esanguratsua izatea (Goikoetxea, 2003).

Ikaskuntza esanguratsua izateko bete beharreko baldintza desberdinak kontuan izan behar dira. Lehenik eta behin, edukiak adierazgarriak izan behar dira, barne-egiturari eta asimilazioari dagokionez (Goikoetxea, 2003). Ausubelen aburuz, asimilazioa, pertsona batek ezagutzen dituen kontzeptuen eta ezartzen dituen harremanen artean oinarritzen baita (Guruzeaga, 2007). Bigarrenik, ikaslea motibatuta egotea beharrezkoa da ikasten duenaren eta dakienaren arteko erlazioa gauzatzeko; hau da, ikasteko jarrera ona izatea ezinbestekoa da. Ikaskuntza-materiala esanguratsua izan arren, ikasleak memorizatzeko joera du, honetan egin beharreko ahalegina txikiagoa eta erosoagoa delako (Goikoetxea, 2003).

Beraz, ikaskuntza esanguratsua baten prozesua gauzatzeko ikasleak ekintza biziak egin behar ditu eta horretarako, eduki berriaren eta eskuragarri dauden elementuen artean loturak ezarri edo horien parte-hartzea handiagoatu behar ditu (Goikoetxea, 2003).

### **1.2.3. Zenbait baliabide euskalkien irakaskuntzarako**

Testuliburua ez da kontsulta material bakarra izan behar, beste informazio-iturri batzuk erabiltzea ezinbestekoa da, ikasleen irakaskuntza garatzen lagunduko baitute; hala nola, informazioa bilaketak eta irakurketak. Izan ere, kontsulta-liburuak, monografiak, aldizkari espezializatuak, herri-azpieuskalkiak, gida turistikoak edukitzea garrantzitsua da, ikasleen aldizkariekin eta lanekin batera (Goikoetxea, 2003).

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982an hasi zuen EIMA programa, eta, harrezkero, indarrean jarraitzen du euskarazko material didaktikoen sorkuntza sustatzeko, haien kalitatea zaintzeko eta administratibotik zabaltzen laguntzeko. Honetan askotariko baliabideak (curriculumeko baliabideak edota irakas-jardunerako material osagarriak) kontsultatu eta eskuratu daitezke katalogoaren egoitzan edo webgunean. Lehenengo eta behin curriculumeko baliabidea aurkitzen da, irakaskuntzarako ikasmaterial desberdinak dituen, hauen artean, ikasliburuak, gidaliburuak eta lan-kuadernoak (adibidez, matematika lantzeko, muga barik pentsatu ikasliburuak eta lan kuadernoak). Honekin batera

eduki digital didaktikoak agertzen dira, sarean eskuragarri zein deskargatzekoak diren webguneak edo simulazio interaktiboak izanik (adibidez, materiaren propietateak ikertzeko baliabide elektrnikoa). Jolas didaktikoak ere aipatzekoak dira, mahai-jokoak (adibidez, matraka jolasa), puzzleak (adibidez, aniztasunez jokatzeko puzzlea) eta multimedia-jokoak (animalien alfabetoa ikastekoa) biltzen dituztenak; hauekin, hainbat gai edota trebetasun desberdin lantzeko aukera dago (EIMA, 2021).

Ahozko testuak lantzeko aurkitzen diren baliabide desberdinen artean, ikus entzuteko grabaketak, dokumentalak, ahoz interpretaturiko testuen antologiak eta idazleen bizitzak aurkitzen dira (Goikoetxea, 2003). Hauek lantzeko, EIMA katalogoak ere baliabide desberdinak eskaintzen ditu, hauen artean; bideo didaktikoak, haur eta gazteentzako dokumentalak, filmak eta elkarrizketak ikuskizunak dituenak (adibidez, matematikan eskala ikasteko ariketen azalpenak); zinema dokumentalak, eskoletan material osagarri gisa erabil daitezkeenak (adibidez, euskararen jatorria ezagutzeko dokumentala) eta erreferentzia-materialak, haur eta gazteentzako kontsulta liburuak, dokumentalak eta webguneak dituztenak, hauek, bakarrik zein helduen laguntzarekin erabiltzeko material osagarriak dira (adibidez, 100 kontu planeta salbatzeko liburua) (EIMA, 2021).

Baliabide desberdinak izateaz gain, tresna desberdinak erabiltzea garrantzitsua da, opakuen proiektorea esate baterako, elkarrekin idatzitako testuak irakurtzeko, aztertzeko eta zuzentzeko erabiltzen dena. Aurikularrak eta ikus-entzunezkoak ekoizpen-egoerari buruzko diskurtsoaren alderdi batzuk aztertzeko, keinuen eta tonuen portaera ikasteko, arau sozio-komunikatiboak aztertzeko eta erregistroak eta dialekto desberdinak eta azpidialektoak konparatzeko ezinbestekoak dira. Honez gain, entzuten den bitartean, herritarren elkarrizketa pantailan irakurtzeko ezinbestekoa den tresna ere aipatu behar da, ordenagailua (Goikoetxea, 2003).

### **1.2.3.1. Eskolarako baliabideak**

Eskola-erakundeetan erabili den hizkuntza-eredua kontrajarria izan da. Eskematikoki bi jarrera bereizten dira: joera bakarzalea eta joera aldaerazalea (Maia, 2001).

Joera bakarzalea erabat indarrean egon da duela gutxi arte, eta azken batean ideia hau adierazten du: eskolan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan landu beharreko hizkuntza-eredu ona liburuetan, literatura klasikoan eta abarretan dagoela, eskolan erabiltzeko eredua bukatua eta itxia izanik (Maia, 2001). Ikuspegi horretan, norberaren hizkuntzaren ezaugarriek eskolaren barruan ez dute inolako baliorik, eta irakaskuntzak haiek baztertzeko edo ezabatzeko joera dute (Maia & Larrea, 2008).



Joera aldaerazaleak, aldiz, maila teorikoan behintzat, hizkuntzaren errealitate konplexua kontuan hartzea du helburu, kontuan izanik arrakastaz komunikatzeko hizkuntza modu desberdinean erabili behar dela. Hortik aurrera, komunikazio-egoeraren arabera, erregistro edo hizkuntza-mailei arreta jartzen die (Maia, 2001). Ikuspegi horretatik, ikasleak eskolara ekartzen duen hizkuntza-eredua bere ikaskuntza antolatzeko oinarriztat hartzen da, beraz, bere hizkuntza baztertu ordez, erabilgarritzat erabiltzen da (Maia & Larrea, 2008).

Portaera hori gaur egun aldatu egin da. Mundu guztiak onartu ez arren, askok badakite hurbiletik hasi behar dela ingurunea aztertzen, eta horretarako eskola kokatuta dagoen herriak horrela jokatu behar du; hau da, erakunde horrek ingurunean integratuta egon behar du (Maia, 2001).

### **1.2.3.2. Helduen euskalduntzerako baliabideak**

Hizkuntza bat ikasterakoan hiru faktorek dute eragina: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Aipatutako faktore hauen arabera, hizkuntzaren ikaskuntza alfabetatzea eta euskalduntzea desberdina izan daiteke, alde batetik, hizkuntzaren izatezko ikaskuntza, naturala dena, eta bestetik, gogoetazko ikaskuntza, arrazoitua dena; ikasketa naturala haurrengan gertatzen da, arrazoitua, aldiz, gazte eta helduengan. Lehenengoan, ikasleek egin beharreko ibilbidea erabileratik motibazioakoa da, eta bigarreanean, berriz, motibaziotik erabilerarakoa (Mugica, 2003).

Hasieran, 36ko gerra amaitu zenean, euskararen erabilera oso mugatua zen, agian erabilera mugatuena. Garai horretan, alde batetik, euskaldunen azken belaunaldiak elebakarrak ziren, frankismo garaia sortzerakoan, haurtzaroa gainditu ondoren, elebidun bilakatu baitziren. Eta, bestetik, testuinguru horretan euskaraz hitz egiteko motibazioa baliogabea zen, euskararen balioespen ahulena zuelako. Urte horietan euskara ikasteko motibazioa guztiz arrotza zen. Dena den, 60ko hamarkadaren amaieran, oso prozesu erakargarriak jarri ziren martxan, hauen artean, ikastolen sorkuntza, Euskaltzaindiko Alfabetatze Batzordea eta Ez dok amairu kantari eta poeten taldea. Hasieran, gizartean zeuden aldaketak eragiteko zegoen motibazioa ez zen nahikoa (Mugica, 2003).

Ezagutzarekin jarraituz, 70eko hamarkadaren hasieran, euskararekiko motibazioa indartzen ari zen, eta euskal kultura bultzatzen zuen proiektu baten urratsak ematen hasi ziren. Motibazioak euskara irakasteko bultzada nabariena izan zen, alde batetik, ikastolen hazkundeagatik, ikastetxe-kopuruaren zein ikasle-kopuruaren aldetik, eta, bestetik, tarte txikian euskara ikasten hasitako jende guztiagatik. Motibazioak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, eta lehen aldian euskalkiak irakasten ziren arren bigarren honetan, euskara batua

zen nagusi (Mugica, 2003). 1972.an, Euskaltzaindiak bi aurrerapausu garrantzitsu eman zituen euskararen irakaskuntza prestatzeko eta bultzatzeko: euskal irakasle titulua sortzea («D» titulua) eta Euskalduntze eta Alfabetatze Batzordearen eginkizunak arautzea. Garai hartako beste ezaugarri bat liburuen eta aldizkariaren argitalpenak ugaritzea zen; izan ere, euskaraz irakurtzeko eta ikasteko premiak eragina izan zuten liburu zein aldizkarietan (Mugica, 2003).

Erabilera-aldia 1980ko hamarkadaren hasieran hasi zen eta honen asmoa herri zein hirietan euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea zen, euskararen bultzatzeko talde eta mugimendu berriak sortuz, esate baterako, Baionako Biltokia. Aldi horretan euskara Hego Euskal Herriko irakaskuntzan sartu zen, haurrek zein gazteek euskara ikasteko ikastetxe publiko eta pribatuetan (Mugica, 2003).

## **2. PROPOSAMENA: “Derioko euskara” webgunea**

Derioko euskara webgunearen helburua, euskalkiak ezagutzea eta eskolan lantzea da, hau lortzeko baliabide desberdinak erabiliz. Helburu hau lantzeko proposamenarekin hasterakoan, proposamena sortzeko baliabide desberdinak behatu ziren, webgune bat, liburuxka bat eta komiki bat izan zirenak. Proposamen desberdinak izatean, webgunea egitea erabaki zen, aukerarik egokiena zelako; webguneak beste proposamenak sartzeko aukera eskaintzen baitu. Hau izan da sortutako webgunea: <https://joneeguskiza.wixsite.com/misitio>

Beraz, proposamenaren prozesua aurrera eramateko, atal desberdinak behatzea eta zehaztea ezinbestekoa zen; atalen artean, webguneak izango dituen ezaugarriak, webgunea sortzeko prozedura, lantzen diren helburu, eduki eta kompetentziak eta webgunea erabiltzeko iradokizunak aurkituz.

### **2.1. Webguneraren ezaugarriak**

Webgune honen helburu nagusia, tokian tokiko hizkuntzak eskolan lantzea da; hain zuzen ere, Derioko euskara. Euskalkiei garrantzia ematea duenez helburu, Derioko euskara eta euskara batua ezagutzeaz gain, euskalkiak eskolan barneratzean datza. Honez gain, Derion zentratuta dagoenez, Derioko informazio orokorra osatzeko, Derioko gune garrantzitsuei buruz ere arituko da. Honekin batera, Derioko euskara nolakoa den ezagutzeko informazioa adieraziko da, hau hobeto ulertzeko jarduerak desberdinak egonez (istoriotxiak, komikiak, podcasta, abestiak edota jolasak). Jardueren bidez, Derioko euskarak garrantzia hartuko du, euskalkia modu entretenigarri batean landuz. Beraz, webguneko atalak

ondorengoak izango dira: sarrera, erabiltzeko iradokizunak, derioko informazioa, Derioko euskara eta jolasak, atal bakoitza bere barruan azpiatal desberdinez osatua.

Gaiaren aurkezpena egiteko, sarreraren webgunearen izena, argazki batzuk (Derioko gune garrantzitsuenetariko batzuk direnak) eta kokapena adierazten duen mapa bat aurkitzen dira, gaiaren inguruko ideia nagusiak modu aske batean ere agertuz. Sarreraren bidez, gaia ulertu eta ideia orokorra barneratu egiten da. Honez gain, webgunea bideratzeko, iradokizunen atala dago, puntuz puntu dena azaltzen duena, jarraitu beharreko urratsak aipatuz; hauen artean, webgunearen garapena, norentzat bideratuta dagoen (3.ziklorako) eta nola erabiltzen den.

Derioko informazio orokorraren atala, bere barnean Derioko gune garrantzitsuen azpiatala du. Derioko informazio orokorrean, gainteko informazioa adierazten da, kokapena, biztanle kopurua eta hauen artean euskaldun kopurua direnak. Gune garrantzitsuen azpiatalean, Derioko gune garrantzitsu guztietatik aukeratutako lau baino ez dira agertzen, guztien bideo azalpen bat izanik, Derioko herria hobeto ezagutzeko.

Hirugarren atala, euskara atala da, Derioko euskara, hizkuntz egitura eta istoriotxoak azpiatalak dituen. Euskara atalean, ikasleek gaiaren inguruko ideia orokorra izateko, euskara batuaren eta euskalkien informazioa azaltzen da Powtoon bideo baten bidez. Derioko euskara azpiatalean, Txorierriko euskalkia non dagoen kokatuta adierazten da, ondoren hizkuntza-egituraren azalpenean, biltzen dituen lau atalen (fonetika, sintaxia, morfologia eta lexikoa) azalpena izanik; bakoitza Powtoon azalpen batez adierazita. Atal honen azken azpiatalean, istoriotxoak agertzen dira (komiki batzuekin eta podcast batekin lagunduta), Derioko pertsonen istorioak oinarri izanda, guk sortutakoak. Euskara batuan idatzitako istoriotxoak izan arren, bakoitzak jarduera desberdin bat du webguneko helburua lortzeko.

Webguneko azken atala, jolasen atala da. Atal honetan Derioko euskara lantzeko jolas edo baliabide desberdinak aurkitzen dira, hain zuzen ere, lau baliabide desberdin, euskarazko esaera zaharren eraketa (ondoren Derioko euskara erabiliz, haien errealitatera eramateko), hitzen asmakuntza, abesti baten sorkuntza eta *Among us* jolasa.

## **2.2. Webgunea sortzeko jarraitu den prozedura**

Webgunearekin hastean, euskalkiei garrantzia emateko helburua finkatzea ezinbestekoa zen, eskoletan tokian tokiko euskara erabiltzea zena; horretarako, “tokian tokiko hizkuntzak eskolan” gaiari buruzko informazioa bilatu zen, ideia orokor bat izateko. Ideia orokorra garatzerakoan, “dakigunetik ez dakigunera” liburua irakurri zen, euskararen inguruko alderdiak ezagutzeko eta eskolan tratatzeko baliabide desberdinen berri izateko.

Honekin batera, euskararen inguruko informazioa webgune desberdinetan bilatu zen, informazio ugari “ahotsak webgunetik” (<http://ahotsak.eus/>) aterata. Webgune honetako informazioa erabiltzeko, haiekin kontaktuan jartzea ezinbestekoa izan zen, haien informazioa erabiltzeko baimena eskatzeko eta onarpena jasotzeko. Beraz, bilatutako informazioa behatuta izatean, herri batean zentratzea funtsezkoa zenez, gure inguruko Txorierriko herriak behatuz, Derio aukeratu zen.

Gaia eta herria aukeratuta izatean, webgunean adierazi nahi ziren atalak aukeratu ziren, bakoitzak landuko zuenaren inguruko informazioa bilatzeko eta bakoitzean burutuko ziren jarduerak pentsatzeko eta sortzeko. Beraz, baliabide desberdinak ikusiz eta euskara lantzeko jarraitu nahi ziren urratsak kontuan hartuta, sarrera bat, Derio herriaren inguruko informazio orokorra, euskara eta informazio guztia lantzeko jolasak izatea hautatu zen, ondoren bakoitzean lantzeko modua, landu beharrekoa eta erabiliko ziren baliabideak aukeratuz eta sortuz. Izan ere, webgunean zehar dauden Derioko argazkiak, irudiak, bideoak eta jolasak esplizituki webgune honetan erabiltzeko sortuak izan dira.

Derioko informazio atalari dagokionez, Derioko guneak, historia, egiten diren ekintzak eta proiektuak behatu ziren. Derioko historia eta guneak ezagutzeko, “ahotsak webguneko” testu desberdinak, bertoko biztanleen elkarrizketak, istorioak eta bideoak ikusi ziren, informazio guztia bilatuta izatean, webgunean adierazteko era pentsatzeko. Derioko informazioaren kokapena, biztanleak eta euskaldunak azaltzeko, Derioko udaletik (<http://www.deriokoudala.net/eu>) atera zen, informazioa testu labur moduan jartzea erabaki zen, ikasleek ideia orokorra izateko. Derioko gune garrantzitsuen informazioa lortzeko Derioko udaleko informazioaz gain, beste webgune batekoa erabili zen (<http://www.bizkeliza.org>). Bilatutako informazio hau, Derioko informazio orokorrean ez bezala, zabalagoa izatean, eta historiaren ezagutza garatzekoa izatean, azalpena egiteko bideo labur bat sortzea aukeratu zen, ikasleentzako lagungarria izateko. Ikasleentzako bideratutako webgunea izatean, letra gutxikoa eta erakargarri izatea zuen helburu, bideoak, irudiak, istorioak eta jolasak erabiliz.

Euskara atalaren prozeduran landu beharrekoak pentsatzea zailagoa izan zen, oso atal zabala baita. Derioko euskaran zentratuta egon arren, euskara batuaren eta euskalkien ezagutza txikia lantzea garrantzitsua zenez, bi atal desberdin lantzea erabaki zen, alde batetik informazio orokorra eta bestetik derioko informazioa. Derioko euskararen berri emateko, “ahotsak webguneko” audioak oinarri izanda (baimena izanik), bideo eta testu desberdinak erabili ziren, informazioa osotasunean barneratzeko. Hala ere, euskalkiaren inguruko azalpenaren eta hizkuntza egituraren informazioa gehiago bilatzeko eta erabiltzen diren

egiturak ezagutzeko, liburuak irakurri ziren (Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara, Derioztarren Euskara, Euskalkiak, herriaren lekukoak eta Euskalkien sailkapen berria), ondoren lortutako informazio guztia azalertzeko modua pentsatuz; izan ere, liburuetan eta webguneetan bilatutako informazio idatzia, webgunean ez zen horrela adierazi nahi. Beraz, atal batzuk testu txikian jarri arren, beste modu batez azaltzeko nahiaz, ikasleek azalpenak edo bideoak ikusteko erabiltzen dituzten baliabideak bilatu ziren, haien errealitatera hurbiltzeko eta haientzat ezagunak direnak erabiltzeko. Baliabide desberdinen artean, Powtoon aplikazio librea (<https://www.powtoon.com/>) erabiltzea erabaki eta aurretik bilatutako informazioa erabiliz azalpen propioak sortu ziren. Honez gain, Derioko euskara ezagutzeko “ahotsak webguneko” audioak eta bideoak ikusita, informazio hori oinarri izanda eta aldaketa batzuk eginez, istoriotxo batzuk sortzea ere erabaki zen, ikasleei entzutea eta lan egitea asko gustatzen zaielako. Istoriotxo hauek ikasleentzako gustokoak izateaz gain, ikasteko baliabideak direnez, bakoitzarekin jarduera txiki batzuk egin ziren, lagungarriak diren komiki eta podcast batzuekin batera.

Azken atalari dagokionez, jolasen atala aurkitzen da, lau baliabide/jolas desberdinez osatuta, banaka zein taldean aritzekoak. Baliabide desberdin hauen bidez gaiaren xedea betetzea lortu nahi denez, ikasleen intereseko baliabideak sortzeko, erabiltzen dituztenak bilatu ziren. Aplikazioak behatuz, Educaplay (<https://es.educaplay.com/>) hautatu zen, jarduera desberdinak sortzeko aukera anitzak eskaintzen dituelako, baliabideak egiteko aplikazio aproposa izanik. Honez gain, ikasleen intereseko jolasak sortzeko joko desberdinak pentsatu ziren, haien egunerokotasunera hurbiltzeko eta haientzat deigarriak direnak sortzeko. Hainbat joko pentsatzerakoan, *Among us* jolasa eta abesti baten sorkuntza aukeratu ziren. Abestiaren sorkuntza nolakoa zen jakiteko, jarraitu beharreko urratsak bilatu ziren (<https://ahozkoliteratura.eus>).

Webguneraren atalak eta bakoitzean erabiliko zen informazioa idatzita eta erabiliko ziren bideoak zein irudiak sortuta izatean, webgunea sortu zen. Informazio guztia kokatuta eta ordenatuta izan ondoren, ikasleentzako webgunea izanik, deigarria eta ulergarria izatea zuen helburu, sinplea eta bizia eginez (kolorez eta marrazkiz beterikoa). Honez gain, irudiak erabili beharrean, marrazki propioak erabiltzea erabaki zen, pertsonalagoa eta bereziagoa izateko. Gainera, webgunea bideratzeko iradokizunak azaltzen dira, erabiltzaileek jarriaibideak izateko eta erabiltzen jakiteko.

### **2.3. Webgunearen bidez lantzen diren kompetentziak, helburuak eta edukiak**

236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailetik abiatuta, webgunearen bidez ikasleek garatzen dituzten helburu, eduki zein kompetentzia (zeharkakoak zein diziplina barrukoak) desberdinak ondorengoak dira:

#### **Oinarrizko kompetentziak:**

##### **Zehar kompetentziak:**

- Elkarbizitzarako kompetentzia: Webguneko jolasak edota jarduerak burutzerakoan talde lanean aritu behar dira, bakoitzak bere ardurak izanez eta amankomuneko lanetan lankidetzan arituz, gainontzekoen iritziak kontuan hartuz eta errespetatuz.
- Hitzezko eta hitz gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia: Proposamenaren bidez jasotzen duten informazio guztia (ahoz eta idatziz) ulertu eta horren inguruan autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez lan egin behar da. Honez gain, webgunea denez, teknologia modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru batez erabiltzea ezinbestekoa da.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia: Proposamenaren bidez euskalkien inguruan ikasten dutena haien testuinguruetara transferituko dute, egindakoaren hausnarketa eginez.
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia: Proposamenean dauden jardueren bidez, ekimenez aritu behar dira, ideiak edo proiektuak sortuz, plangintza eginez eta beharrezkoak diren ekintzak gauzatuz.
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia: Ikaskuntza guztian zehar norberak dituen sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egiten da, autoebaluazioa eginez.

##### **Diziplina barruko kompetentziak:**

- Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia: Proposamenean hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzen dira bizitzako egoera guztietan zuzen eta errespetatuz komunikatzeko eta hizkuntzen inguruko jakintza garatzeko. Gainera, nor bere burua eta inguratzen gaituena osotasunean eta hobeto ezagutzeko laguntzen du, kasu honetan haien herriko hizkuntza.
- Kompetentzia sozial eta zibikoa: Tokian tokiko hizkuntzak eskolan duten garrantzia ezagutuko dute, jarduerak gauzatzerakoan bakoitzak bere burua, bere taldea eta bere mundua ezagutzeko eta ulertuz.

##### **Helburuak:**

- Eskolako eta ikasleen inguruko hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzea, berezitasunak lantzerakoan jarrera egokia izanik, kultura ondareztat hartzeko.

- Haien inguruetan euskara bultzatzeko ekintzak egitea, baliabide desberdinak erabiliz, euskalkien garrantzia barneratzeko.
- Haien euskalkia ezagutzea eta menperatzea, baliabide desberdinak erabiliz, euskalkiak aberasteko bide bihurtuz.
- Egunerokotasunean euskalkiak erabiltzeko aukera izatea, ahozkoatasunaren zein idazketaren bidez, euskalkiak ezagutza garatzeko.

### **Edukiak:**

- Eskolan zein norberaren inguruan euskararen erabilera zabaltzearen eta normalizatzearen aldeko ekimenetan parte hartzea.
- Era autonomoan jarduerak egiteko gaitasuna eskuratzea.
- Euskararen aldaera dialektalak identifikatzeko eta aztertze gaitasuna izatea.
- Landutako informazioa praktikara eramaten jakitea.
- Hizkuntza estandarraren eta norberaren inguruko euskaaren aldaera dialektalak izatea.
- Talde lana eta lankidetzak bultzatzeko estrategiak sustatzea.

### **2.4. Erabiltzeko iradokizunak**

Webgunea atalka sortuta dago; hau da, gaiaren inguruko ideia orokorra izateko hasieran sarrera aurkitzen da, ondoren, informazioa osotasunean izateko teoria azaltzen da eta azkenean, landutako guztia praktikan jartzeko jolasak daude. Webguneraren diseinua dela eta, 3.zikloko ikasleentzat bideratuta dago, egin beharreko jarduera zein jolas batzuk konplexuak direlako eta hauek burutzeko IKT-ekin trebeak izan behar direlako.

Webgunea irakasleei eta ikasleei zuzenduta egon arren, irakasleak bideratuko du nagusiki, irakasteko gida bezala erabiliz. Ikasleek nahi duten atala nahi duten momentuan ikusteko aukera izango dute, haien ikasteko materiala izango baita; hala ere, salbuespen txiki bat egongo da jolasen atalarekin. Jolasen atala, irakasleak guztiz bideratuko duen atal bakarra izango da; hau burutzeko denok elkarrekin edo denok batera aritu behar dira, jolas batzuk taldeka burutzekoak direlako.

Honez gain, onlineko irakaskuntza egiteko aproposa den webgunea da, bizi dugun antzeko egoera bati aurre egiteko; izan ere, webgunean, informazioa zuzenean adierazten da, landutakoa praktikan jartzeko aukera ere eskainiz. Honez gain, ikasleen zein irakasleen erabiltzeko webgunea denez, autonomiaz garatzeko aukera ematen du, online ikaskuntza baterako oso garrantzitsua den puntu bat izanez.

### 3. ONDORIOAK

Euskara batuaren sorrera baino lehen, euskararen aldaerak egon arren, bigarren maila batean egon dira. Guztiok elkar ulertzeko hizkuntza bat sortzeak, ez luke beste hizkuntza aldaeretan eraginik izan behar; izan ere, baliagarriak dira hizkuntzen eraketan. Beraz, hauei gizartean behar bezalako garrantzia ematea ezinbestekoa da, denboraren poderioz hauek desagertzeko joera sahiesteko. Egoera hau aldatzeko, arriskuan dauden hizkuntzak berreskuratzeko lehenengo eremuan sartzea komenigarria izango litzateke, hezkuntza, eskola dena.

Eskola ezinbesteko eremua izateaz gain, ikasleengan eragin zuzena duen esparrua da, haien garapenean eta hazkuntzan eragin zuzena baitu. Honetan, ikasleek haien nortasuna garatzen duten alorra izatean, egoera desberdinetan dituzten sententzioak zein emozioak adierazteko erosoan duten hizkuntz aldaera erabiltzea onuragarria izango litzateke, euskara batua alde batera utzi gabe. Hau da, nahiz eta idatzizko momentuan ikasitako euskara batua erabili, ahozotasuna lantzerakoan, hizkuntzaren aldaera ez-estandarrek erabiltzea.

Nahiz eta hizkuntza aldaerak eskolan lantzea baliagarria izan, ez da egoera erraza, ez daudelako behar beste baliabide. Hala ere, baliabiderik ez izateak, ez da eskoletan ez lantzeko arrazoiak. Eskolan garrantzia duen atala lantzerako momentuan, ikerketak egiteko, informazio bilatzeko eta irakasteko gogoak izatea derrigorrezko puntua izan behar da. Horretarako, informazio iturri desberdinetan pilatutako informazioarekin (iturri batean informazioa osotasunean aurkitu ez arren, iturri desberdinetatik zati desberdinak erabiliz informazio osoatuagoa lor daiteke) baliabide berrien sorrera ezinbestekoa da.

Baliabideen eraketan artean, webgune baten sorkuntza aukera paregabea da, honek informazioa lantzeko tresna desberdinak izateko aukera eskaintzen baitu. Hau da, informazio teorikoa (idatzizkoa zein ahozkoa) eta praktikoa (jarduera zein jolas desberdinak) landu daitezke, hauek sortzeko baliabide eta aplikazio anitzak erabiliz. Hortaz, sortutako webgunea, aukeratutako herri baten euskararen aldaerari aurre egiteko baliabidea da, etorkizunean beste herrietan lantzeko lagungarria den baliabidea izanik. Gainera, ikasleek haien egunerokotasunen erabiltzen duten baliabidea izatean (IKT-ekin igarotzen baitute denbora ugari), ezaguna egiten zaie, gaia lantzeko alderdi positibo batean bihurtuz.



#### 4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Ahotsak. (z.g.). *Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea*.  
<https://ahotsak.eus/euskalkiak/mendebalekoa-bizkaiera/sartaldekoa-m/> -tik  
 berreskuratuta 2020-11-26an.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Ormaetxea, J. L. & Videgain, X. (2019). *Euskalkien sailkapen berria*. Bilbao, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Derioko Udala. (2021). *Derio*.  
<http://www.deriooudala.net/es-ES/Servicios/Euskera/Paginas/Berbalagun.aspx> -tik  
 berreskuratuta 2021-02-20an.
- EIMA katalogoa. (1982). *Euskarazkoa Ikasmaterialen Dokumentazio zentroa*.  
<http://eimakatalogoa.eus/vufind/> -tik berreskuratuta 2021-02-22an.
- Elkartea, G. (2010). *Hizkuntzaren estandarizazioa*. Euskararen berreskuratzea II. Eskoriatza: Garabide Elkarte.
- Elordui, A. & Maia, J. (2002). Eskola eta dialektoak: irakaskuntzan gertatzen diren arazoak eta irtenbideak. *Revista de Psicodidáctica*, (13).
- Escribano, D. (2015). *Diglosia Euskal Herriarentzat?. Enperadorearen jostuna 'teoriaren' harietan korapilatua*. *Jakin*, (211), 99-134.
- Euskaltzaindia. (2004). *Adierazpena Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioa*. [http://www.euskaltzaindia.es/dok/arauak/Araua\\_0137.pdf](http://www.euskaltzaindia.es/dok/arauak/Araua_0137.pdf) -tik  
 berreskuratuta 2021-04-26an.
- Euskaltzaindia. (1968). *Euskara batua*.  
[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=597&highlight=](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=597&highlight=) -tik  
 berreskuratuta 2021-02-18an.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. (2015). *236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_heziberri\\_dec\\_curriculares/eu\\_def/adjuntos/OH\\_curriculumosoa.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjuntos/OH_curriculumosoa.pdf) -tik berreskuratuta 2021-02-15an.
- Gaminde, I., Elgoibar, E., & Sanz, Z. (2006). *Derioztarren Euskara*. Tximintx Euskara Elkarte.
- Garay, U., Etxebarria, A. & Mounole, C. (z.g.). *Euskara eta beste hizkuntzak euskal gizartean eta eskolan*.

- Goikoetxea Arrieta, J. L. (2003). *Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera. Euskal Diglosia Irazian.*
- Goikoetxea Arrieta, J. L. (z.g.). *Euskal diglosia irazia eta irakas-kuntza esanguratsua euskalkia eskolaratzeko I.*
- Guruzeaga Zubillaga, A. (2007). *Ikaskuntza esanguratsua eta ingurugiro hezkuntza ikerketa lana: Hezkuntzaren hobekuntzarako proposamen bat.*
- Labayru Fundazioa. (1977). *Labayru fundazioa.* <https://www.labayru.eus/es/> -tik berreskuratuta 2021-02-23an.
- Larringan, L. M. (1993). *Euskara batua eta euskalkiak. Aintzat hartu beharreko praktikak. Jakin*, 76. 11-39.
- Maia, J. (2001a). *Eskola eta tokian tokiko hizkuntz aldaera.* Mendebalde Kultura.
- Maia, J. (2001b). *Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan.*
- Maia, J. (2001c). *Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan.* Revista de psicodidáctica, (12), 0.
- Maia, J., & Elordui, A. (2002). *Eskola eta dialektoak: irakaskuntzan gertatzen diren arazoak eta irtenbideak.*
- Maia, J., & Larrea, K. (2008). *Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.*
- Martinez de Luna, I., Erize, X., & Zalbide, M. (2011). *Evolución sociolingüística del euskera (1981-2011).* Transmisión y competencia, motivos subjetivos para el comportamiento lingüístico, y práctica lingüística: evolución y retos de futuro.
- Mugica, P. L. (2003). *Helduen euskararen irakaskuntza: egoera eta bilakaera (1956-1986).* Gerónimo de Uztariz, (19), 9-48.
- Txorierriko Mankomunitatea. (z.g.). *Txorierriko Mankomunitatea.* [http://www.txorierrri.eus/eu-ES/Zerbitzuak/Euskera/Orriak/bizi\\_Euskararentxokoa.asp](http://www.txorierrri.eus/eu-ES/Zerbitzuak/Euskera/Orriak/bizi_Euskararentxokoa.asp) -tik berreskuratuta 2021-02-20an.
- Zuazo, K. (2004). *Euskalkiak, herriaren lekukoak.* Donostia, Elkar.
- Zuazo, K. & Goiti, U. (2016). *Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara.* Bilbo, UPV/EHU.